



EBAZPENA, 2011ko UZTAILAREN 1EKOA, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LANGILERIAREN KUDEAKETARAKO ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEKIN ZERBITZUAK EMATEKO ZERBITZU-EGINKIZUNEN DEIALDIA BEHIN BETIKO EBAZTEN DUENA.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren 2011ko maiatzaren 16ko Ebazpenaren bidez hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin zerbitzuak emateko lanpostuen deialdia egin zen.

Deialdiaren bederetzigarren artikulua ezarritakoari jarraituz, Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-tauletan argitara eman zen deialdiaren behin-behineko ebazpena eta hiru laneguneko epe bat ireki zen, erreklamazioak egiteko.

Deialdiaren hamagarren artikulua araber, aurkeztutako erreklamazioak aztertu ondoren, hautapen-batzordeak Langileria Kudeatzeko zuzendariari helaraziko dio deialdi honen ebazpen-proposamena. Horrekin batera, honako hauek ere helaraziko dizkio: behin betiko akta edo aktak, izangai bakoitzaren merezimenduei emandako balioespenak jasotzen dituen, eta hautatuen azken zerrenda.

Langileria Kudeatzeko zuzendariak zerbitzu-eginkizunei buruzko behin betiko Ebazpena emango du, eta Hezkuntza Ordezkaritzetako iragarki-tauletan argitaratuko da.

Horiek horrela, hautaketa-batzordeak egindako Ebazpen-proposamena ikusita, hauxe,

EBAZPENA

Argitaratzea Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetako iragarki-oholetan eta Saileko web orrialdean I. Eranskinean jaso den deialdiaren behin-betiko emaitza

ERREKURTSOAK

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldatuak, 114. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 1a

Juan Manuel Aramendi Arteaga
LANGILERIAREN KUDEAKETARAKO ZUZENDARIA